

San Sebastian ere joan zaigu, jaun-andreok. Leengo urtekoa atzo zala zirudien, eta aurtengoa ere atzo.

Santu zaar orrek baditu, ba, bere ezaugarri onak. Garai batean, gure sagardotegiak irekitzeko egun seinatua izaten zan, gaur egun leentxeago irekitzen dira baiña. Izan ere, bein Erregeenak pasa ordurako asten gera galdezka «noiz irekitzen dira?, nundik asiko gera aurten?».

Ezin egon saltsan sartu gabe. Eta sagardotegiok zer egingo dute, ba, jendea irrikaz dagoela jakinda? Eman martxa aurrera edo 'martxa atzasa', eta prest jarri txotxerako. Txootx...

Gaiñera, nola animatzen gaituzten!

-No! Aurten kategoriakoak dizkiagu, ba! Oraindik berri samarrak zaudek, baiña bereala etorriko dituk beren onenera. Aude xente aurreratua zegok. Oraintxe irekiko diagu. Txootx!

Jendea, raa, bata bestearen ondoan, basoak eskuetan artuta, ardiak artzaiaren ondoren bezela.

Begira egoteko ere une politikak dira txotxaldi oiek. Batez ere, jende berria edo emakume xebreren batzuk tartean diranean, jakintsu-itxura egitearren basoa etzanean artuta, erdia beera isuriaz. Besteren bat basoa tentente artuta, arraskan ura edateko bezela.

Baiña xelebreena izaten da, eta au ere emakumeena da: basoa be-

NIKOLAS ZENDOIA

SAGARDOTEGIAK ETA ELORRIXA

Aurten iru bertsolari izan ditugu.
Bat iazkoa: Amets Arzallus.
Besteak, Julio Soto eta Jon Maia



tetzen-betetzen eta ez dira kentzen. Eta larritutakoan:

-Sartu atzekoa, sartu atzekoa!
Atzekoa da ondoren dagoena.

-Ken adi, ba, neska, paretik, aurrera sartuko banaun...

Benetan irigarriak, bai, txotxaldi oiek.

Bitartean, txotx-irekitzailea bere propagandaxoa egiten jende-tropari:

-Urrengoa, laua irekiko diagu. Zazpia ere bazetorrek bere onera. Bederatzia, berriz, inoiz faillatzen ez duena diagu. Orrek urte-

ro mama berdintsua eduki oi dik. Gaiñera, orren berri bazekitek Nikolasek eta Joxe Ramon Zubimendik. Bein, bidali egin bear izan genizkian emendik.

Lasai, gizona, danek ez dute jakin bear-eta.

Egia da Zubimendik eta biok, bein, esaten dan bezela 'manomano' ari giñala upel bederatzia laua zalakoan. Oartzera, azke-

na geratu giñan. Eta argiak itzali zizkiguten Iruin sagardotegian. A zer mesedea egin ziguten!

Ondoren artan esan nuena esango det berriz ere: parranda gutxi egiten duen jendearekin ezin dala inora joan.

Zer egiten ote du Joxe Ramon adiskideak? Ez det aspaldiko berririk.

Aupa, Iruin; prest al zerate? Ea ba aurtengoa ere iru-lau joan-etorri egiten ditugun sagardotegietatik.

Rezolara ere joan nai genuke, Agin bertako mutillak aurtengo Gipuzkoako bertsolari-txapelketan mailla bikaiña eman du-eta. Ea bertsotan bezain ona dan sagardoa egiten. Aupa, Agin; azalduko gaituk.

Baiña ni ari naiz esaten, azken urte auetan, sagardotegietan jan geiegi jartzen dala. Alegia, aski litzakeela bakailloa piperrekin, gazta eta intxaurrak. Jaki oiek

egiten dezu gustora sagardo-tragoa. Bein txuleta ikuitzen dezu-nean, gutxiago gonbidatzen zaitu txotxera.

Gaiñera, txuleta kendu ezker, askozaz merkeago aterako litzazuke sagardotegia. Eta orrela sarriagotan joango giñateke, eta diru berdiña gastatuko genuke sagardotegi-garaian.

Sagardogilleek, berriz, diru-kopuru berdiña irabaziko lukete. Eta danok obeto ibiliko giñakeela iruditzen zait.

Kolesterola eta azido urikoa ere gradu egokiagoan edukiko genituzke. Eta ori kontutan artzekoa da. Baiña, baiña, an muturrak gorrituta txuleta ederrari aginka gaudenean, esan jan gabe lagatzeko... Ez lirateke begirada xuxenak izango.

Alperrik ariko naiz, eta jarrai ezazue leenean. Azken batean, neurria artzea da, gauza danetan bezela.

Onezkero esan dezue norbaitzuk: «Au pelota egiten ari dek, ea norbaitek gonbidatzen duen». Laga ditzadan, ba, sagardotegiko kontuak beren orretan, eta aldatu dezadan gaia, baiña Sebastian zaarari jarraituz.

Deba parteko Elorrixan gain politan egin ditugu, ba, antolatuta zeuzkaten urteko San Sebastian jaiak. Egunkari onetako nere orrikidea dan koiñata Mari Karmenek bost bat kilo galdu ditu pisan egun oietan.

Izan ere, bere taberna bakarrik dago Elorrixan. Eta nora joango

gera, ba? Asi eguerdian salda be-roarekin, arratsalde erdian bazkaria, eta afaria auskalo noiz! Eten-gabeko trikitixa-otsarekin.

Omenaldia ere egin diote elorrixatarrek Mari Karmeni. Egundoko moñoña zebillen. Bertsotan ere jardun zan. Arrapa ezak!

Zer bear du geiago ermitaxo bateko erromeriak? Jakiña, bertsolariak. Oiek ere baziran, ordea.

Erri-bazkaria zegoen antolatu, pasa degun asteburuan, taberna-atariko zelaian eta karpatalpe eder baten babesean. Iaz, Arzallus anai-arreben saioa entzun genuen.

Maddalen neska ori ere ez dek muturrera begiratzekoa, mutillak! Bertsotan, anaiaren pare egiten du. Kantatuz, gitarra eta panderoa jotzen, berriz, ez da gelditzen. Joko ez du, ba, panderoa sasoi orrekin!

Aurten, iru bertsolari izan ditugu. Bat iazkoa: Amets Arzallus. Besteak, Julio Soto eta Jon Maia. Idazten ari zaizun aitona au ere antxe zan, bertsolarientzat gai batzuk papertxoan artuta. Lortu genuen karpako bertsozaleak pozik edukitzea. Eta ez da gutxi.

Gustoa ematen du orrela kantatzen duten bertsolariei gaiak ematea.

Irakurle, jakiñean zaude Elorrixan zer jai polit egiten diran. Badakizu nora jo urrengo urtean. Baiña, aal badezu, leenago ere etorri. Ez zaizu damutuko-eta.

DI 21-01-2016